

Mendeberriak berripaperaren azken aleak ekintzaitasuna du aztergai

2007/03/28

Kaleratu berri da **Mendeberriak** berripaperaren azken zenbakia, **9.a**, eta hor **ekintzaitasuna** da gai nagusia.

Joxe Mari Aizega errektoreorde akademikoak berripaperean dioen moduan, kontuan hartuz gero **Mendeberri** proiektu pedagogikoak garatu nahi dituela diziplinartekotasuna, berrikuntza, zeharkako kompetentziak, balioak, ikaslearen autonomia eta erantzukizuna, "testuinguru horretan ekintzaitasuna bultzatzea helburu naturala da".

Berripaperak **bederatzi artikulu** dakartza, eta horietan hitz egiten da MU **unibertsitate ekintzailea** izateko garatzen ari den estrategiez, horixe baita unibertsitatearen nahia.

Mendeberriak

Mondragon Unibertsitatearen **HEZI-ICE** Hezkuntza Zientzien Institutuak argitaratzen du Mendeberriak berripapera, unibertsitatearen hezkuntza eredua, hots, Mendeberri, hobetzeko asmoarekin. 16 orrialde ditu eta urtean hiru aldiz kaleratzen da.

